

Fiskalizazio Txostena
Informe de Fiscalización

Elgoibarko Udala

Ayuntamiento de Elgoibar

1998



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas



AURKIBIDEA/ÍNDICE

SARRERA.....	3
ONDORIOAK	4
I. Legea betetzea.....	4
II. Kontularitzako alderdiak	5
III. Finantza analisia eta kudeaketaren alderdiak	6
III.1 Finantza analisia	6
III.2 Kudeaketaren bestelako alderdiak eta gomendioak.....	9
INTRODUCCIÓN.....	14
CONCLUSIONES	15
I. Cumplimiento de la legalidad	15
II. Aspectos contables.....	16
III. Análisis financiero y aspectos de gestión.....	17
III.1 Análisis financiero.....	17
III.2 Otros aspectos de gestión y recomendaciones	20
ANEXOS	25
A.1 Análisis de la contratación	25
A.2 Cuentas anuales y plantilla	27
ALEGACIONES	30

Vitoria-Gasteiz, 2000ko irailaren 15a

Vitoria-Gasteiz, 15 de septiembre de 2000



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, berau arautzen duen 1/88 Legean finkatutakoari jarraiki, Elgoibarko Udalaren ekonomia-finantza jardueraren azterketa gauzatu du, 1999ko apirila-2000ko martxoa Urteko Lan Programan barne hartua zegoena.

Fiskalizazioa ez da bete-betekoa, udal jardueraren azterketa diagnostikoa baizik; era honetako lanetan proba laburtuak egiten dira bai lanaren zabalean, baita ondorioetan ere.

Hona hemen aztertu ditugun alorrak:

- antolamendu orokorra
- aurrekontu eta kontularitzako kontrolak
- kudeaketa eta zerga bilketarako prozedurak
- langileriaren kudeaketa
- zerbitzu eta obren kontratazioa
- dirulaguntzak ematea

Azterlanean aurkitu ditugun legehausteak Ondorioen I. idazpuruan azaldu ditugu, eta II.ean kontularitzakoak. Ondotik, III.1 idazpuruak Udalaren azterketa finantzarioa erakutsiko digu; III.2 atalean, berriz, Udalaren kudeaketa hobetzeko hainbat gomendio proposatzen dira.

Elgoibarko Udalak 10.869 biztanle zituen 98.1.1ean eta hiru erakunde autonomo besarkatzen ditu:

- San Lazaro egoitzetxea: agureentzako egoitza zerbitzua.
- Kirolaren Udal Patronatua: kiroldegien kudeaketa.
- Elgoibarko Musikaren Fundazio Publikoa: musikaren kultura eta dantza herrikoien sustapena.

Udala ondoko erakunde hauetan partaide da:

- Debarrenako Mankomunitatea: bide garbiketa eta zabor bilketa.
- Debabe Mankomunitatea: euskararen ikaskuntza.
- Deba Beheko Mendi Nekazaritza Elkartea – Debemen: eskualdeko baserri-garapena.
- Gipuzkoako Uren Partzuergoa.

Azkenik, ondoko sozietateetan partaidetza gutxiengoak mantentzen ditu:

- Elgoibarko Industrialdea, SA (%24,5).
- Debegesa (%12,5): eskualdearen sustapen ekonomikoa.



ONDORIOAK

I. LEGEA BETETZEA

Egin dugun lanean ezargarria den arautegian honako huts hauek aurkitu ditugu:

Aurrekontu eta kontularitzako arautegia

- Udalaren artekaritzak ez du gastuaren exekuzioa harik eta dagokion gastua eskuratu arte kontrolpetzen, eta honenbestez, ez du kontratuak esleitzeko prozesua fiskalizatzen, ezta horien esleipena kontuetaratzen ere (gastuaren konpromisoa edo D fasea) (Toki Entitateen Aurrekontuzko 4/91 F Aren 67 eta 40. art.-TEAFA).
- Artekaritzak ez du erakunde autonomoen aurrekontuaren exekuzioa fiskalizatzen (TEAFAren 67. art.).

Ondasun-zerrenda eta ondarea

- Udalak ez dio Osokoari 1993az geroztik Ondasun-zerrendaren urteroko eguneraketa aurkeztu. 1999an zerrenda berraztertu eta eguneratzeko kontratua egin du (Ondasunen Arautegiari buruzko 1372/86 EDren 33. art.) eta jakinarazi digute, osokoak onirizteko aurkeztuko dela.

Langileria

- Lanpostuen zerrendak ez du funtzionarioen destino osagarriaren maila adierazten, izan ere, idazpuru hau langile bakoitzari izendatutako ordainsari maila adierazteko erabiltzen baita -edo Arcepaferen maila- (Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legearen 15.1 art.-EFPL eta Euskal Administrazio Publikoetako Funtzionarioen Ordainsariei buruzko 207/90 Dekretuaren 4. art.).
- Udalak 1998rako Arcepafe ezartzea onartu zuen, 1997.aren %3,02ko igoerarekin. Igoaldi honek, ordea, Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko 1998ko Legea urratzen du, esaten baitu ordainsariek ez dutela %2,1etik gorako igoerarik izango (65/97 Legearen 18.2 art.).
- 1998ko urtealdian gastu handien eragin duten aldibateko langileen 14 kontratazioak aztertu ditugu; bertan ikusi dugu, horietatik hirutan, 4 milioi pezeta egiten zutenetan, ez dela hautaketarako inongo prozedura formalik erabili eta honenbestez, ez direla berdintasun eta objektibotasunaren printzipio orokorrak gorde (EFPLren 33.1 art.).

Administrazio kontratazioa

Udal Administrazioaren 11 kontratazio espediente berrikusi ditugu, 128 milioi pezetako esleipen zenbatekoa egin dutenak eta 1998an 66 milioi pezetako gastuak eragin zituztenak; hona hemen azaleratu diren legehausteak (ikus A.1 eranskina):



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- 48 milioi pezeta egin zituzten sei kontratu publizitate eta lehiarik gabe esleitu ziren (Administrazio Publikoetako Kontratuei buruzko 13/95 Legearen 11.1 art.) eta aurrez kontratua arautuko duen plegurik onartu gabe, eman beharreko zerbitzuaren derrigorrezko egitasmo edo zehaztasun teknikorik gabe eta esleipen hartzaileari betekizun fiskal eta sozialetan eguneratua dagoelako egiaztatzea (APKLren 11.2 eta 20.f art.).
- 66 milioi pezetan esleitutako hiru obra kontratu, horretarako aurrekontu-izendapenik izan gabe esleitu ziren (APKLren 63.c art.).

Kirolaren Udal Patronatua erakunde autonomoa

Erakunde honen kontratazioa aztertzerakoan 6 espediente ikusi ditugu, 1998an 30 milioi pezetako gastuak eragin zituztenak, eta zera azaleratu da (ikus A.1 eranskina):

- 12 milioi pezeta egin zituzten bi kontratu publizitate eta lehiaketarik bideratu gabe esleitu ziren eta aurrez aipatutako tramitazio prozedurak bete gabe: baldintzen plegua, egitasmoa eta egoera fiskala eta Gizarte Segurantzarekikoa egiaztatzea (APKLren 11.1, 11.2 eta 20.f art.). Gainera, horietako batek, 7 milioi pezetakoak, ez zuen aurrekontu izendapenik (APKLren 63.c art.).

San Lazaro egoitzetxea erakunde autonomoa

- Erakundeak likidatzen duen prezio publikoa Zuzendaritza Batzordeak onartzen du; horretarako eskumena duen erakundea, ordea, udalbatza da (Toki Ogasunei buruzko 11/89 FAREN 50. art.).
- 1998an 2. kapituluko gastuaren %68, 45 milioi pezeta, kontratari bakar batek egin zuen (ikus A.1 eranskina). Ematen dituen zerbitzuak esleitzerakoan ez dira gorde publizitate eta lehia printzipioak eta ez dira aurrez aipatutako tramitazio prozedurak bete (APKLren 11.1, 11.2 eta 20.f art.).

Musikaren Fundazio Publikoa erakunde autonomoa

- Erakunde honek ez du langilerik eta bere egitekoa Udaletik eskuratzen dituen dirulaguntzak hainbat elkarteri banatzera mugatzen da, musika eskola, musika banda eta dantza taldeari, alegia. Erakunde honen kontuak ez dira Kontu Orokorrean barne hartu, eta honenbestez, ez ditu Osokoak onartu (TEAFAREN 47, 62 eta 63. art.).

II. KONTULARITZAREN ALDERDIAK

98.12.31ko Diruzaintza gerakinaren zenbatekoa murriztaraziko luketen hainbat huts azaleratu zaizkigu:

- 1998an egindako gastuak, 1999ra arte kontularitzan erregistrorik gabeak, 26 milioi pezetako zenbatekoan.
- Udalak ez du zalantzazko kobragarritasuna duten kobratzeko saldoen balioespenik egin, gutxi gora-behera 25 milioi pezetako kopurua egin lezakeena.



III. FINANTZA ANALISIA ETA KUDEAKETAREN ALDERDIAK

III.1 FINANTZA ANALISIA

Geroko inbertsio-programen finantzaketa, batik bat, bi barneko aldakiren baitakoa da: eragiketa arruntek sortutako emaitza eta zorpidetza handiagoa izateko aukera batetik, eta kanpoko aldaki baten baitakoa, bestetik: beste erakunde batzuetatik eskura ditzakeen kapital dirulaguntzak. Inoiz, Diruzaintza gerakinak garrantzia izan dezake, oraindik erabili ez den aurreko urtealdietako finantzaketa erakutsi baitezake.

Hona hemen udalaren magnitude nagusiak azken urteetan, onartutako likidazioetatik eskuratu direnak:

FINANTZA ANALISIA	Milioi pta.n				Mila pta.n/biztanleko				Erref. 97 (*)	
	Urtea				Urtea				Gip	Eusk
	95	96	97	98	95	96	97	98		
1etik 3rako kapit. sarrerak.....	458	459	485	541	42	42	45	50	54	49
4. eta 5. kapit. sarrerak	543	613	657	688	50	57	60	63	64	57
A. Sarrera arruntak guztira	1.001	1.072	1.142	1.229	92	99	105	113	118	106
Langile gastuak.....	313	308	301	305	29	29	28	28	32	32
2. eta 4. kapit. gastuak.....	445	514	537	548	41	47	49	50	45	40
B. Funtzionamendu gastuak	758	822	838	853	70	76	77	78	77	72
Aurrezki gordina (A-B)	243	250	304	376	22	23	28	35	41	34
Finantza gastuak: 3. kapit.....	121	115	76	54	11	11	7	5	5	4
Emaitza arrunta	122	135	228	322	11	12	21	30	36	30
Jasotako kapital dirulaguntzak	45	86	112	57	4	8	10	5	7	7
6. eta 7. kapit. inbertsioak	175	96	195	135	16	9	18	12	30	22
12.31n Diruzaintza gaindikina	13	24	51	179	1	2	5	16	29	25
12.31n zorpidetza	1.276	1.198	1.113	1.000	117	110	102	92	82	63

(*) Gipuzkoa / Euskadiko 10.000 eta 20.000 biztanle bitarteko Udalen batez bestekoak 1997an

Biztanleak 10.869

Aurrezki Gordina

Elgoibarko Udalak 1997ko urtealdian biztanleko sortutako aurrezki gordina 28.000 pezetakoa da eta tamaina bereko udal gipuzkoarrek lortutakoaren %68 baizik ez du egiten, 41.000 pta./biztanleko. 1998. urtean egoera nabarmen hobetu da, %24 gora egin duela.

Osaeran ikusi dugu zerga sarrerak erreferentziazko udalena baino %17 txikiagoak direla, batik bat, zerga nagusienetan ezarritako tarifa txikiagoak direla eta (honi buruzko informazio xehekatua Gidan argitara emandako udal adierazleak kontsultatuta eskura daiteke, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantzen Saileko hainbateroko argitalpena, 1999ko abendua).

Funtzionamendu gastuak erreferentziazko multzoak egiten dituenen pareko dira, 77.000 pta./biztanleko, langile gastu txikiagoak 2. eta 4. atalburuetako gastu handiagoekin berdinkatzen direla. Aztertu dugun laurtekoan ikusi da langile gastuek bere horretan eutsi




diotela, izan ere, soldata igoerak ordezkatu ez diren langileen jubilazioekin konpentsatu baitira.

Zorpidetza

EMAITZA ARRUNTA ETA ZORPIDETZA

Mila pta./bizt.



Gipuzkoako zutabeak 1997ko urtealdiari dagozkio

1998ko itxieran zorpidetza 92.000 pta./biztanlekoa izan da. Bilakaeran murrizketa progresiboa egin duela ikusten da, 1995-98 aldian %22 egin baitu behera; hala eta guztiz ere, tamaina bereko Gipuzkoako udalen batez bestekoaren gainetik dago (82.000 pta./biztanleko 1997an).




Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Inbertsioak

INBERTSIOAK

Mila pta./biztanleko



Gipuzkoako zutabea 1997ko urtealdiari dagokio

Udalaren inbertsioak txikiak dira tamaina berekoek egiten dituztenekin alderatuz gero, 18.000 pta./biztanleko 1997an, batez besteko 30.000 pta.ren aldean.

Hala eta guztiz ere, beste erakunde batzuetatik eskuratutako kapital dirulaguntza bitartez finantzatzen diren inbertsioak 1997an multzo bereko gainerako udalenak baino handiagoak dira, biztanleko 10.0000 pezeta egiten dituztela, 7.000ren aldean.



III.2 KUDEAKETAREN BESTE ALDERDI BATZUK ETA GOMENDIOAK

1. Aurrekontuak eta kontabilitatea

1.1 Helburuak eta aurrekontuaren adierazleak

Udalak ez du urteko aurrekontuan barne hartzen udal arduradunek egin beharreko ekintzen eta eskuratu beharreko helburuen gaineko urteko informazioa.

Aurrekontuak urtealdian egin beharreko ekintzen eta horien bitartez eskuratuko diren helburuen memoria argigarria jaso behar du, hartara, Alkateari, Udalbatzari eta lan-batzordeei kudeaketaren jarraipen hobea egitea bideratuko lieke.

1.2 Aurrekontua oniriztea eta inbertsioen eranskina

1998. urtealdiko aurrekontua ez zen 1998ko apirilaren 6ra arte oniritzi, behin-betiko onirizpena maiatzaren 28ko Gipuzkoako Agintaritza Aldizkarian argitaratu zela (Toki Entitateen Aurrekontuzko 4/91 F Aren 15.2 art.-TEAFA).

Aurrekontuak ez du inbertsioen aurrekontuari buruzko eranskina besarkatzen.

Ez urteko aurrekontuek, ezta onartutako kontuek ere ez dute urteanitzeko konpromiso-kredituei buruzko derrigorrezkoa den informazioa biltzen.

Urteko aurrekontua erreferentziagai duen urtealdia hasi aurretik oniritzi behar da eta inbertsioei buruzko eranskina jaso behar du, aurrekontu egindako lanak hirigintza planeamenduarekin lotuta zehaztuz, eta urteanitzeko obretarako planen berri ere emanaz.

Urteanitzeko kredituei buruzko informazioa gogoan hartu behar da bai aurrekontua onirizten denean, baita gerora egin daitezen aldaketetan ere, eta Kontu Orokorraren bitartez gastu horien kontu eman.

1.3 Eskari eta ordainagirien kontrola

I. atalean adierazi bezala, artekaritzak ez du gastuaren exekuzioa kontrolpetzen harik eta dagokion ordainagiria eskuratzen ez duen arte.

Gastuaren kontrola ordainagiria iritsi aurretik egin behar da, gutxienez nolabaiteko garrantzia duten eragiketak direnean (esate baterako, 100.000 pta.tik aurrerako kopuruetan). Hau lortzeko gastu proposamenak Artekariaren bitartez bideratu behar lirarteke, diru-izendapena dagoela kontrolpetzeko eta, baita, eskaria bideratzeko ere (prozedura hau iada aurreikusia dago Aurrekontu Egiterapenari buruzko egungo Udal Arauaren 12. artikuluan, nahiz 1998an ez duen hala jardun).



Epe laburrean eta harik eta eskarien kontrol eraginkorrik egiten ez den bitartean, Artekaritzak udalean jasotako ordainagiri guztiak kontrolpetzeko gomendatzen dugu eta hilero itxiera egiteko prozedura fidagarriak finka ditzala.

1.4 Ordainagiririk gabeko ordainketa aginduak

Udal jaietarako aurrekontu partidatik garrantzitsuenen artean, 12 milioi pezetako 18 ordainketa aginduren edukia aztertu dugu eta hona azaleratu zaizkigun hutsak:

- 2,3 milioi pezeta egin dituzten zazpi agindutan, agiri nahiz bestelako zeinahi agiri justifikagarri erantsi dira, dagokion ordainagiria erantsi beharrean.
- Sei ordainketa, 4 milioi pezetakoak, udalerriko elkarteei egin zaizkie jarduera jakin batzuk antolatzeke, jardueraren balioetsitako kostua oso-osorik aurreratuz eta aurkeztutako geroko egiaztagiria kontularitzako erregistroei lotu ez zaiela, kudeatzailearen departamentuan gordez.

Antzeko egoera gertatzen da Kirolaren Udal Patronatuan, guztira 1,3 milioi pezetako hiru ordainketa agindurekin, bi enpresari ordaindu baitzitzaizkien herriko jaietan pilota jaialdi bat antolatzeke.

Beti eskatu behar da ordainagiria, alor hau arautzen duen arautegi fiskalaren arabera; baita entitate batek udalaren eta kontratatu den hirugarrenaren artean. Azken kasu honetan, komeni da aurreikusitako zenbatekoaren %100arekin aurrerakinen ordainketa ekiditea, izan ere, onuraduna behartzen baita egiazko gastua jasoko duen likidazioa aurkeztera, emandako laguntza osatuko duen bigarren ordainketaren euskarri izango dena.

1.5 Bestelako alderdiak

- Aurrekontu egiterapenerako araua xumetu egin daiteke, aurrekontu arautegia errepikatu baizik egiten ez duten hainbat artikuluko kenduta.
- Langileen aurrekontu-eranskinak alferrrik zerrendaratzen du urtealdi hasieran kontratua indarrean zuen aldibateko langileria.
- 1998ko abenduan onartutako kreditu aldaketak ordainketa kredituak 110 milioi pezetan gehitu zituen; aldaketa hau kreditu gaikuntza modura bideratu zen, arautegiak aurreikusten zituen egoerekin bat ez etorri arren; horregatik, kreditu bat gehiago bailitzan bideratu behar zatekeen.
- Udalak ez du urteko kontuetan urteko memoria barne hartzen, ezta urtealdiaren aurrekontu-emaitzaren kalkulua egiten ere (TEAFaren 48. eta 62. art.).
- Transferentzia eta dirulaguntzen 4. atalburuan zerbitzu emanaldiaren kontzeptupean hainbat gastu kontuetaratzen dira, duten izaera ikusita, 2. atalburuan erregistratu behar liratekeenak:



- Inbertsio modura kontuetaratu da baserri guneeetan obrak egiteko 26,3 milioi pezetako partida bat, Debemen elkarteari udalerrian egindako obrak ordaintzeko erabili zena. Zuzen erregistratzeko kapital dirulaguntza izendun modura erregistratu behar zatekeen.
- Kirolaren Udal Patronatuaren ordainagiriak dagokiena baino urtealdi bat lehenagoko sarrera modua kontuetaratzen dira.
- Ondare kontabilitateari dagokionez, Udalak ez ditu higiezindua amortizatzeko zuzkidurak egiten eta kapital dirulaguntzak balantzearen kontu batean ordaintzen dira, gerora inongo mugimendurik egin gabe.

2. Zerga kudeaketa eta dirubilketa

- Kirolaren Udal Patronatuan kiroldegiko bazkideen ordainagirien errolda ez da formalki oniritzen.
- Udalak ez du hirigintza baimenatarako eskabideen gaineko kontrol erregistrorik egiten.
- Exekutiban egiten diren kobrantzetarako erabilitako berariazko kontu korrontea hileroko diru-kontaktetan barne hartu behar litzateke.

3. Langileria

- Lanpostuen zerrendak modu bereizian aurkeztu behar lituzke lan kontratupeko langileak eta funtzionarioak, izan ere, talde bakoitzak datu-egitura ezberdina baitu.

4. Kontratazioa

4.1 Erosketen unitatea

Udalak urteko erosketa eta kontratu kopurua handia du, baina ez ditu kontrataziorako sistema zentralduak finkatu.

Komenigarria da erosketen kudeaketa zentralduko duen berariaz gaitutako administrazio unitate txiki bat sortzea, udal arduradunek egindako eskaerak eta kontratazioaren arautegiari meneratzen zaizkion espedienteen tramitazioa bideratuko dituen. Beste egiteko batzuk izango lirateke erosketa prozesuen estandarizazioa, zentraldutako erosketen esparrua mugatzea, biltegi-beharrizanak balioztatzea, etab.

4.2 Bestelakoak

- Udalak hainbat obra esleitzen dituenean ez du birplanteaketa egiaztatzeko tramitea egiten, gerora kontratariarekiko harremanatarako derrigorrezkoa eta oinarritzkoa dena: erantzukizunak eta epeak betetzeko eskatzeko, etab.



5. Dirulaguntzak

5.1 Dirulaguntzen emakida: ordenantza arautzailea

Laguntza gehienak Aurrekontuan izenez ematen dira, baina badira hainbat izendapen udalerrian diharduten irabazi asmorik gabeko elkarte ugariren artean banatzen direnak; izendapen horiek 1998an 56 milioi pezeta egin dituzte. Horien artean, garrantzitsuena kultur elkarte bati zuzenean ematen zaion 14 milioi pezetako dirulaguntza bat da.

Erakunde autonomoetan, Musika Fundazioak 42 milioi pezeta banatzen ditu eta Kirolaren Patronatuak, berriz, 11 milioi pezeta.

Bai Udalaren Kultura alorrak, bai azken erakunde autonomo honek ere, garatu dute horren inguruko barne arauketaren bat, baina ez zaio publizitaterik eman eta ez da kasu guztietan aplikatzen.

Kultur elkarteari zuzenean emandako dirulaguntza izendun modura jaso behar da aurrekontuan.

Nahiz tamaina txikiko udalerrietan, oro har, elkarteek ezagutzen dituzten zein dirulaguntza dauden eta ematen diren, dirulaguntzen emakidari buruzko ordenantza orokorra eta hori garatuko duten berariazko ordenantzak lantzea gomendatzen dugu.

5.2 Udal talde politikoei dirulaguntzak eta bertaratzeagatiko dietak

6 talde politikoei egin zitzaizkien ordainketek 1998an 9 milioi pezeta egin zituzten, bi ataletan zati-banatzen zirela: dirulaguntzaren atala (5 milioi pezeta) eta batzordeetara joateagatik Udaleko 17 zientzietan ordaintzen zaien dieten atala. Ordainketak talde politikoei egin zitzaizkien atxikipenik gabe.

11/99 Legearen aldaketak udal arautegiari txertatu. Zientzietan ordaintzen zitzaizkien dietei atxikipena egin behar zaie.

5.3 Pertsona fisikoei dirulaguntzak

Udalak eta Kirolaren Patronatuak dirulaguntza modura hartu zituzten 1998an ondoko lan hauek egin zituzten 9 pertsonari guztira egindako 4,2 milioi pezetako ordainketak: operadorea, udal zinemako txartel-saltzailea eta aretozaina, zamalanak, borondatezko hiru suhiltzaile, futbol zelaiko kontserjea eta eskola kirolaren programa-koordinatzailea.

Emandako zerbitzuak hobeto egokitzen dira lan edo kontratuen esparruan eta nolabehere ere, ordainketa hauek ondorio fiskaletarako aitortu egin behar dira.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

5.4 Bestelakoak

- Udalak ez die onuradunei dirulaguntzak ordaindu aurretik, betebeharriskalekiko, eta kasua denean, Gizarte Segurantzarekiko gaurkotuak daudelako egiaztagiririk eskatzen.

6. Erakunde autonomoak

6.1 Erakunde autonomoen kopurua murriztea

Musika Fundazioaren egiteko bakarra udal fondoak hainbat elkarteri banatzea da, musika eskola, musika banda eta dantza taldeari, alegia.

Kirolaren Udal Patronatuak urteko 76 milioi pezetako aurrekontua eta plantilan bi langile zituen.

Musika Fundazioaren jarduera udalak berak hartu behar luke bere gain. Era berean, badirudi komenigarria dela Kirolaren Udal Patronatuaren beharra aztertzea.

INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas/TVCP, conforme a lo establecido en la Ley 1/88 reguladora del mismo, ha realizado una revisión de la actividad económico-financiera del Ayuntamiento de Elgoibar en el ejercicio 1998, incluida en el Programa Anual de Trabajo abril 1999-marzo 2000.

El trabajo realizado no es una fiscalización completa, sino un análisis diagnóstico de la actividad municipal, tipo de revisión en la que se aplican pruebas abreviadas tanto en su extensión como sus alcances.

Las áreas analizadas han sido las siguientes:

- organización general
- controles presupuestarios y contables
- procedimientos de gestión y recaudación de tributos
- gestión de personal
- contratación de servicios y obras
- concesión de las subvenciones.

Los incumplimientos de legalidad detectados en la revisión se describen en el epígrafe I de las Conclusiones, y en el II las deficiencias de tipo contable. A continuación, el epígrafe III.1 presenta un análisis financiero del Ayuntamiento, y el III.2 propone algunas recomendaciones para mejorar la gestión del mismo.

El Ayuntamiento de Elgoibar tenía a 1.1.98 una población de 10.869 habitantes, e integra en su estructura tres organismos autónomos:

- Residencia San Lazaro: servicio residencial a ancianos.
- Patronato Municipal de Deportes: gestión de las instalaciones deportivas.
- Fundación Pública de Música de Elgoibar: promoción de la cultura musical y danza tradicional.

El Ayuntamiento forma parte de las siguientes entidades:

- Mancomunidad del Bajo Deba-Debarrena: limpieza viaria y recogida de basuras.
- Debabe Mankomunitatea: aprendizaje del euskera.
- Deba Beheko Mendi Nekazaritza Elkarte - Debemen: desarrollo rural comarcal.
- Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.

Por último, mantiene participaciones minoritarias en las siguientes sociedades:

- Elgoibarko Industrialdea, SA (24,5%).
- Debegesa (12,5%): promoción económica de la comarca.

CONCLUSIONES

I. CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

En nuestra revisión se han detectado los siguientes incumplimientos de la normativa aplicable:

Normativa presupuestaria y contable

- La Intervención municipal no controla la ejecución del gasto hasta que se recibe la factura correspondiente, por lo que no fiscaliza el proceso de adjudicación de los contratos, ni contabiliza la adjudicación de los mismos (compromiso del gasto o fase D) (arts. 67 y 40 de la NF 4/91 Presupuestaria de las Entidades Locales-NFPEL).
- La intervención no fiscaliza la ejecución del presupuesto de los organismos autónomos (art. 67 de la NFPEL).

Inventario y patrimonio

- El Ayuntamiento no ha presentado al Pleno, desde 1993, la actualización anual del Inventario. En 1999 ha contratado la revisión y puesta al día del mismo (art. 33 del RD 1372/86 Reglamento de Bienes) que, según nos informan, será sometida próximamente a aprobación plenaria.

Personal

- La Relación de Puestos de Trabajo no indica el nivel de complemento de destino de los funcionarios, ya que utiliza este epígrafe para indicar el nivel retributivo asignado a cada trabajador -o nivel de Arcepafe- (art. 15.1 de la Ley 6/89 de la Función Pública Vasca-LFPV y art. 4 del Decreto 207/90 de Retribuciones de los Funcionarios de las Administraciones Públicas Vascas).
- El Ayuntamiento aprobó la aplicación para 1998 del Arcepafe, con un incremento respecto de 1997 del 3,02%. Este incremento incumple la Ley de Presupuestos Generales del Estado para 1998, que establece que las retribuciones no debían experimentar un incremento superior al 2,1% (art. 18.2 de la Ley 65/97).
- Hemos revisado las 14 contrataciones de personal temporal que más gasto han supuesto en el ejercicio 1998, detectando que en tres de ellas, por importe de 4 millones de ptas, no se ha seguido ningún procedimiento formal de selección y, por lo tanto, no se han respetado los principios generales de igualdad y objetividad (art. 33.1 de la LFPV).

Contratación administrativa

Hemos revisado 11 expedientes de contratación de la Administración Municipal, por un importe de adjudicación de 128 millones de ptas. y que generaron gastos durante 1998 por 66 millones de ptas, detectando los siguientes incumplimientos (ver anexo A.1):

- Seis de los contratos, por importe de 48 millones de ptas, se adjudicaron sin publicidad ni concurrencia (art. 11.1 de la Ley 13/95 de Contratos de las Administraciones Públicas-LCAP) y sin aprobar previamente un pliego que regule el contrato, sin el preceptivo proyecto o definición técnica del servicio a prestar, y sin exigir al adjudicatario la certificación de estar al corriente en sus obligaciones fiscales y sociales (arts. 11.2 y 20.f de la LCAP).
- Tres contratos de obra, adjudicados en un importe de 66 millones de ptas, lo fueron sin que existiera consignación presupuestaria para los mismos (art. 63.c de la LCAP).

Organismo autónomo Patronato Municipal de Deportes

En la revisión de la contratación de este organismo hemos analizado 6 expedientes, que generaron gastos durante 1998 por 30 millones de ptas, detectando que (ver anexo A.1):

- Dos de ellos, por 12 millones de ptas, se adjudicaron sin publicidad ni concurrencia, y sin cumplir los procedimientos de tramitación antes referidos: pliego de condiciones, proyecto, y comprobación de la situación fiscal y con la Seguridad Social (arts. 11.1, 11.2 y 20.f de la LCAP). Además uno de ellos, por importe de 7 millones de ptas, carecía de consignación presupuestaria (art. 63.c de la LCAP).

Organismo autónomo Residencia San Lazaro

- El precio público que liquida el organismo es aprobado por su Junta Directiva, siendo el Pleno municipal el órgano competente (art. 50 de la NF 11/89 de Haciendas Locales).
- El 68% del gasto en 1998 del capítulo 2, 45 millones de ptas, se desarrolló por un único contratista (ver anexo A.1). En la adjudicación de los servicios que presta no se han respetado los principios de publicidad y concurrencia, ni se han cumplido los procedimientos de tramitación antes referidos (arts. 11.1, 11.2 y 20.f de la LCAP).

Organismo autónomo Fundación Pública de Música

- Este organismo, que no tiene personal, se limita a redistribuir las subvenciones que recibe del Ayuntamiento a diversas asociaciones, como la escuela de música, banda de música y grupo de danzas. Sus cuentas no se han incluido en la Cuenta General y, por lo tanto, no han sido aprobadas por el Pleno (arts. 47, 62 y 63 de la NFPEL).

II. ASPECTOS CONTABLES

En nuestra revisión se han detectado las siguientes salvedades que minorarían la cuantía del Remanente de tesorería a 31.12.98:

- Gastos realizados en 1998 y sin registro contable hasta 1999, por 26 millones de ptas.
- El Ayuntamiento no realiza una estimación de los saldos a cobrar de dudoso cobro, que podrían suponer una cuantía aproximada de 25 millones de ptas.



III. ANÁLISIS FINANCIERO Y ASPECTOS DE GESTIÓN

III.1 ANÁLISIS FINANCIERO

La financiación de futuros programas de inversión depende, fundamentalmente, de dos variables internas, el resultado generado por las operaciones corrientes y la posibilidad de incurrir en un mayor endeudamiento, y de otra externa, la de conseguir subvenciones de otras instituciones. Ocasionalmente, el Remanente de tesorería también puede permitir la financiación de inversiones, al representar un excedente de recursos de ejercicios anteriores pendientes de utilización.

Las principales magnitudes del Ayuntamiento en los últimos años, deducidas de sus liquidaciones aprobadas, se presentan en el siguiente cuadro:

ANÁLISIS FINANCIERO	En millones de ptas.				En miles-ptas/habitante				Refs. 97 (*)	
	Año				Año				Gip	Eusk
	95	96	97	98	95	96	97	98		
Ingresos caps. 1 al 3	458	459	485	541	42	42	45	50	54	49
Ingresos caps. 4 y 5	543	613	657	688	50	57	60	63	64	57
A. Total Ingresos Corrientes	1.001	1.072	1.142	1.229	92	99	105	113	118	106
Gastos de personal.....	313	308	301	305	29	29	28	28	32	32
Gastos caps. 2 y 4	445	514	537	548	41	47	49	50	45	40
B. Gastos de Funcionamiento	758	822	838	853	70	76	77	78	77	72
Ahorro Bruto (A-B)	243	250	304	376	22	23	28	35	41	34
